

## FUNTSEZKO JARDUERAK

- **Produkzioko jarduerak:**
  - Jarduera mota hau gure kasuan oso gutxitan beteko da:
    - ZiUREKIN-en **lehen argitalpenenean**:
      - Programatzaileek eta enpresaren arduradunek aplikazioaren **diseinua eta nondik norakoak finkatu** beharko dituzte.
      - **Diseinua burutu** beharko da, funtzio guztiak betetzen direla ziurtatuz.
    - Eman beharko den **berrikuntza bakoitzean**:
      - Diseinua birbegiratu ostean, falta diren edo **gehitzea komeni den funtzioak sartu** beharko dira, bezeroen eskaeretatik edo eta enpresaren inizatibatik abiatuta, produktua aldatuz, bai **itxuran edo baita funtzioan ere**.
- **Arazoak konpontzeko jarduerak:**
  - Programatzaile edo arduradunek, produktuaren (web-gune zein aplikazioaren) **ahulguneak** behin eta berriz begiratu ostean, **mantenua burutzeko** egin beharko diren jarduerak bete beharko dituzte.
  - Eman daitezkeen **akats posibleak, bezeroaren arretari dagokionez**, funtsezkoak izan daitezke aplikazioaren funtzionamendu egokia eta beraz helburuak betetzea bermatzeko. Horregatik, akats oro **zainduta** egon beharko da, eta **konponbidea ahalik eta azkarren emateko prest**.
    - **Esaterako: telefono linearen kolapsatzea, poliziarekin konexio galera...**
- **Plataformako edo sareko jarduerak:**
  - **Telefonoarekin beti** egon behako du norbaitek.
    - Boluntario zein langileek beti egon beharko dute telefonoa hartu eta **produktuak berez eskaintzen duen arreta gauzatzeko prest**, horretarako, **ordutegiak eta antolamenduak** burutu beharko dira aurretik, akatsik egon ez dadin.
  - Arreta beti egon beharko da jarrita **kasu larrienetan ahalik eta erantzun azkarrena emateko**, eta horrek, langile bat baino gehiagoren interakzioa eskatzen du, horretarako lan egin eta haien ardura hori izango baita.
  - **Ahalik eta zabalkunde handiena** lortzea ere izango da helburua, ongizate sozialaren bila, eskaintzen dugun baliabidearen hedapena gero eta handiago izan dadin. Horretarako, hau gestionatzen aritu beharko dira zenbait langile, beste erakunde batzuekin **elkarlan berriak bilatzen** eta harreman hauetan **sor daitezkeen aukerak aztertzen**.